

FUNTSEZKO JARDUERAK

Klaseen planifikazioa → Klase bakoitzean non gordeko den ikaslearen beharrezko materiala (materiala behar bada), zenbat ikasle egongo diren klase bakoitzean (gehienez 22 ikasle klaseko normalean eta handitu behar bada 25 gehienez) eta nola antolatuko diren ikasleak, kontuan hartuta bakoitzaren maila, behar izanez gero berarentzat egokitzen den klase batean sartzeko. Orduan, klase mota bakoitzerako maila ezberdineko klaseak antolatuko dira, hau da, maila baxua, maila ertaina eta maila altua.

Hasieran, ikaslearen maila behatzeko, lehenengo egunean nola moldatzen den frogatuko da eta aldaketarik egin behar bada ahalik eta azkarren egitea, klaseak eguneratuta izateko. Kontuan hartu behar da ere norbaitek egun bakarreko klase batera doala hala agian kurtso erdian uzten duela klasea, horretarako zerrenda bat izan beharko zen klasera apuntatuta dauden eta apuntatu nahi diren ikasleekin, modu honetan zenbat ikasle egongo diren kontrolpean izango genituzke.



Klaseen funtzionamendua → Klasearen *funtzionamendua* klase motaren arabera izango da. Klase bakoitzak 20-22 ikasle (klase bat baino gehiago sortu ahal bada) izango ditu eta ordu bat eta laurden iraungo dute.

Marrazketa → Klase honetan ikasleak marrazketa mailaren arabera banatuta egongo dira (lehen marrazketa klaseak egin duten hala ez eta nola marrazten duten). Irakasle bat egongo da ikasle guztietaz enkargatuko dena eta batzuetan beste irakasle bat (Domi) egon ahalko da laguntzen klasearen zailtasuna gehiegizkoa bada. Klasearen hasieran ikasle bakoitzak bere eserlekura joango dira eta egun horretan zer egingo duten entzungo dute. Gero banaka altxatuko dira egun horretarako behar duten materiala hartzeko. Klasearen bukaeran ikasle bakoitzak ziurtatuko da hartu duen materiala bere lekura bueltatzen dela, baina horretaz aparte ikasle batek bere material propioa, etxetik ekarritakoa, ekarri nahi badu aukera izango du klasean uzteko, ikasle bakoitza bere lanak gordetzeko kutxa pertsonala izango duelako.

Dantza→ Klase honetan ikasleak dantza mailaren arabera banatuta egongo dira (lehendik dantza egin badute eta nola egiten duten dantzaren arabera). Iraskasle bat egongo da ikasle guztietaz enkargatuko dena (klasea emango duena) eta askotan beste irakasle bat (Domi) egongo da laguntzen (laguntzailea).



Klasearen hasieran ikasleak beraien gauzak eskina batean utziko dituzte (zapatekin batera behar ez badituzte) eta zirkulo batean eseriko dira irakasleari entzuteko zer egingo duten egun horretan. Klase honetan ez dute izango leku bat haien gauzak gordetzeko marrazketa klasean bezala, garbitasunagatik batez ere, orduan klase bukaeran ikasle bakoitzak bere gauzak hartuko ditu egunero.

Robotika→ Aurreko ereduetan bezala, ikasleek mailaren arabera banatuko dira eredu bakoitzeko ikasleek haien artean hiruko taldeak(ikasleen arabera aldatu ahal da taldeen tamaina) sortuko dute, klase ordu osoa izango dute proiektuak egiteko, egokitutako mailaren arabera proiektuaren zailtasuna aldatuko da, nahiz eta oinarrian proiektu berdina izan, talde bakoitzak bere kutxa propioa izango du, ordenagailuak beti leku berdinean egongo dira, ordutegi ezberdineko ikasleak ordenagailua banatuko dute, proiektua 5 saiokoak izango dira orokorrean, eta proiektu bat amaitu ostean berri bat sortuko da. Klasea amaitzean dena gorde beharko dute.

URTEBETETZEAK

Urtebetetzeak ospatzeko bezeroak erabakiko du zenbat gauza egongo diren, pailasoak, pastela, puziak edo bestelako ikuskizun bat nahi izanez gero adierazi beharko digu, gero guk urtebetetzeak antolatzen duen enpresari enkargatzeko, hortaz, prezioa bezeroak eskatzen duenaren arabera da, hala ere guk prestatutako urtebetetze "paketeak" egongo dira, prezio eta ikuskizun ezberdinekin.

